

# PROTOTIPOAK

## BOUCHRA QUIZGUEN-EN 'CORBEAUX' (BELEAK) PERFORMANCEAN PARTE HARTZEKO DEIALDI IREKIA

Azkuna Zentroak gonbit egiten dizu Marokoko Bouchra Quizguen koreografoaren 'Corbeaux' (Beleak) performancean parte hartzera, aurtengo maiatzaren 30etik ekainaren 3ra arte izango den 'Prototipoak. Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketaren' barruan.

### DESKRIBAPENA

'Corbeaux' (Beleak) tradiziozko antzerkiko espaziotik kanpo garatzen den intentsitate izugarriko esperientzia bat da. **Pieza** honetan, beltzez jantzitako figura batzuk iluntasunetik azaltzen dira eta, txoriak balira bezala, erritmo hipnotikoan dantzatzen egiten dute aurrera.

Arte Garaikideko Marrakexeko Bienalean sortu zuen pieza (2014), Compagnie O konpainiako 18 dantzarekin. Beste herrialde batzuetatik egindako ibileran, Bouchra Quizguen-ek ahalegina egiten du tokietako emakumeek bere konpainiako emakume dantzarien artean txertatzeko, beleen aldra bakan eta berezia osa dezaten, lana erakusten den espazio bakoitzean.

Orain, 'Corbeaux' (Beleak) Bilbora iritsiko da 'Prototipoak' programaren barruan, eta berriz errepikatuko da esperientzia.

### DEIALDIA

#### Parte-hartzaileen ezaugarriak

**10 emakume** bilatzen ditugu, profesionalak edo amateurak, **18 eta 45 urte artekoak**, 'Prototipoak' Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketaren barruan izango den 'Corbeaux' (Beleak) pieza kolektiboan parte hartzeko.

#### Hautaketa

Bouchra Quizguen-ek gidatutako tailerren barruan egingo da 10 parte-hartzaileen hautaketa, eta tailer horietan parte hartzeko aurrez eman beharko da izena.

Tailerrak **martxoaren 6an** izango dira, Azkuna Zentroan; bat goizeko ordutegian eta bestea arratsaldean. Tailer bakoitzak **2 ordu** inguruko iraupena izango du.

Tailerretako batean parte hartzea aski izango da hautagaia izateko.

Tailerrak zabalik daude deialdian izena ematen duten emakume guztiei, eta **doakoak**

izango dira.

### **Audizioa/tailerra**

Lehenengo kontaktu honetan, Bouchra-k **'Corbeaux' (Beleak)** sortzeko izandako prozesua ikertu, eta piezaren zati bat erakutsiko die parte-hartzaileei. Tailerra amaitu ondoren, hautatutako 10 parte-hartzaileei gonbit egingo zaie prozesuarekin jarraitzeko, **'Corbeaux' (Beleak)** piezako beste artistekin batera txertatuta.

### **Izen-ematea**

Parte hartu nahi baduzu, eman izena, Azkuna Zentroko web orrian dagoen inprimakia betez ([www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)). Gero, harremanetan jarriko gara zurekin, esleitutako taldea eta ordua berresteko.

### **JENDAURREKO AURKEZPENAK**

**'Corbeaux' (Beleak)** proiektu artistiko baten zerbitzuan jarritako giza abentura da. Gurutzaketa erritmikoa, eta, aldi berean, sinbiosia taldearekin, performancean parte hartzen dutenei konpromisoa eskatuko baitzaie.

**Konpromiso horren arabera, parte-hartzaileek ordainsari ekonomikoa jasoko dute, sektorean indarrean dauden akordioen arabera.** Hautatutako emakumeek 400 euroko ordainsaria jasoko dute (zergak sartu gabe).

### **Entseguak**

Hautatutako 10 emakumeek bat egingo dute konpainiako kideekin, performanceko entseguak eta prestatze-lanak egiteko.

Lau entsegu egingo dira, **'Corbeaux' (Beleak)** jendaurrean aurkeztu aurreko egunetan, eta haietako bakoitzak **2 ordu eta erdi** inguruko iraupena izango du.

### **Jendaurreko aurkezpenak**

**'Corbeaux' (Beleak)** pieza maiatzaren 30ean, eta ekainaren 1ean eta 2an aurkeztuko da jendaurrean.

**Informazio gehiago:**  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

